

Anaitasuna Ikastolako Kantu-jolasak bideoa kaleratu dute

Ikastolako umeak kantu jolasak erakusten

Ermuko Anaitasuna Ikastolak, 25 kantu eta jolas biltzen dituen bideoa atera berri du kalera. Estibalitz Gonzalez irakasleak zuzenduta eta bertan parte hartu duten guztien ilusio eta gogoek lagunduta, errealitate bihurtu da duela 7 hilebete hasi zen egitasmoa. Honen guztiaren inguruan hitz egiten aritu zen Drogetenitturri, Estibalitz Gonzalez eta Anaitasuna Ikastolako zuzendaria den Koldo Aranberriarekin. Era berean, bideoko protagonisten iritziak jaso nahi izan ditugu. Guztiak bildu eta hona hemen laburpena.

- Nola sortu zen ideia hau?

E.G: Nere lanagatik, urte-etan bildutako materiala neukan (kantuak eta jolasak). Ikastolan, irakasleei kanta eta jolas horiek erakusteko beharra ikusi zen, gero umeei transmititzeko eta umeekin erabiltzeko. Horrela ba, gabonak baino lehen bai irakasle eta baita jantokiko begiraleei ere ikastaro arin-arin bat eman zitzaion. Bertan, kantu-jolasak eta jolas tradizionalak landu ziren. Lehenengo saioan, oso giro ona sortu zen eta pentsatu

genuen polita eta interesgarria izan zitekeela hori grabatzea. Izan ere, han parte hartzen ari zirenek bizi zuten momentu hura edukitzeko eta DBH-ko irakasle batek grabatu zuen bigarren saio hura.

K.A: Azken finean grabaketa hurak, zerbait hobea egiteko premia zegoela erakutsi zigun.

- Nola bideratu da egitasmoa?

K.A: Nik hor egin dudana bakarra, gestioa izan da, bitar-



tekaritza alegia.

Lehenengo irakasle eta begiraleek eurek jasotakoa umei erakutsi zieten. Estibalitzek zatiketa bat egin zuen, maila bakoitzean kantu-jolas

bat erakusteko. Era horretan ikusi zen Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ume guztiek parte hartuko zutela eta jolas guztiak bete behar zirela.



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



**BAR
BOINKA**



**MUGA
KIRLOAK**

San Pelaio 4A behea
Telefona: 17 64 77
ERMUA

E.G: Kantu jolasak maila bakoitzaren arabera egokitu ziren. Hau da, adin bakoitzerako zein zen egokia ikusi eta irakasle bakoitzak kantu eta jolas bat zeukan lantzeko ikasleekin, Hori izango zen gero hain zuzen ere, bideoan agertuko zena.

- Pausu hori eman ostean norengana jo zenuten?

K.A: Gestio aldetik, Udalera joan ginen proposamenarekin aurrekontua finantzia zezaten. Bitartean grabaketa eta muntaia guztia egingo zuen norbait bilatzen aritu ginen, eta behin hori lotu genuenean, grabaketekin hasi ginen. Horretarako, Estibalitz klaseetatik libratu zen guztia ongi koordinatu ahal izateko.

E.G: Talde bakoitzak bere ordua zeukan kamararen aurrean eta sei arratsaldetan egin zen grabaketa osoa. Guztira 9 ordu eman genituen.

- Nolakoa izan da umeen jarrera?

E.G: Oso jatorra orokorrean. Agian talde batzuk desmotibatuagoak egon ziren baina ez zen arazorik izan. Gainera kamararen aurrean, urduri baino emozionatuak zeuden ikasleak. Nik uste dut, eurentzat ere egun haiek zerbait berezia izan zutela, gauza diferentea eta berria zelako.

K.A: Nire ustez orokor har, pozik zeuden eta orain emaitza ikusi ostean pozago.

- Zenbat mailak hartu du parte?

K.A: Haur eta Lehen Hezkuntzan dauden ikasleek hartu dute parte. 2 urtetik 12 urte bitarteko umeek. Egia esan, guretzat ere bitxia izan da, gutxitan egin den zerbait egin delako.

- Irakasleen inplikazioa garrantzitsua eta ezinbestekoa izan da...

E.G: Zalantzarik gabe; nik jendea oso ondo ezagutzen nuen, jantokian ere ibili naiz eta konfidantza guztiarekin aritu naiz. Inoiz ez nuen pentsatu horrelakorik egitea, baina egitekotan argi zegoen Ermuan egin behar nuela. Egorak ere lagundu zuen, ni Ikastolan nengoen irakasle gisa eta beste irakasle batzuk nire ordezkioak egin zituzten egitasmoa ahalbidetzeko.

K.A: Alde batetik, guk bultzatu genuen Esti, ez genuen inolaz ere zalantzan jartzen bera ez zenik izan behar. Gainera, guztien aldetik egiteko go-goa eta ilusioa zegoen.

- Irakasle, begirale eta umeek gain, beste batzuk ere egin dute lana, ezta?

E.G: Bai, ahotsaren grabaketa Carlos Balseirok egin du, azalaren diseinua Esther Astarloak eta grabaketa eta muntaia, C.O.R bideo estudioko Rafa Cabellok.

- 35 minutuko iraupena du bideoak eta 25 kantu-jolas biltzen ditu. Zein i-

zan da helburua?

E.G: Alde batetik, ikusten zen premia horri erantzutea. Era berean, umeak eurak bakarrik agertzen dira bideoan. Izan ere, umeek autonomiarekin jolastu ahal izatea zen beste funtzioetariko bat. Hau da, konturatu zitezen ez dutela beti pertsona bat behar euren jolasak bideratzeko. Bestalde, kantu-jolas asko oso ezagunak dira, gaur egun guraso direnek bere haurtzaroan erabilitako kantak eta jolasak alegia. Nahiz eta gaztelaraz ikasi zituzten, gertuko materiala da gurasoentzat. Azken finean ume eta gurasoei zuzenduta dago eta baliagarria da seme-alabak bakarrik edo gurasoekin aritzeko.

- Zein izango da bideo honen hedapena?

K.A: Guztira 590 kopia egin dira eta horietako batzuk, erakunde eta elkarte ezberdinei doan banatuko zaizkie. Udalak, bideoaren produkzioa ordaintzeaz gain, erakunde eta elkarten kopiak ordaindu ditu. Bestalde, Guraso Elkar-teak Ikastolako familia bakoitzari ale bana ematea erabaki du eta irakasle eta jantokiko begiralei ere eman zaie.

- Aurrerantzean bideoa lortzeko aukerarik bai?

E.G: Bai, C.O.R bideo estudio 1500 pezetatan erosteko aukera izango da.

Alazne Aiestaran



UMEEN IRITZIAK

- "Kapitaina" izan da gehien gustatu zaidana.
- Askok gustatzen zaigu eta gurasoei ere.
- 8 aldiz ikusi dut dagoeneko bideoa.
- Oso ondo moldatu gara Estirekin.
- Kantuak eta dantzak ikastea izan zen zailena.
- Abesti batzuk aldatuko nituzke.
- Gutxiengustatzen zaidana, gauza batzuk moztu dituztela da.
- Oso aldatuta ikusten dugu gure burua baina ondo ateratzen gara.
- Abesti batzuk nahiko sosoak dira.
- Bideoa luzeagoa izatea gustatuko litzaidake.
- Gehiagotan azaltzea nahiko nuke.
- Bideoa barregarria da.

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

**ELEKTRIZITATEA
ZUBIAURRE**

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61
48260 ERMUA